

KAPITALAREN MINTEGIA

8. SAIOA

SEIGARREN ATALA

XVII. KAPITULUA. LAN-INDARRAREN BALIOA EDO PREZIOA SOLDATA BIHURTZEA

Ekonomia politikoan, soldata "lan-kopuru jakin batengatik ordaintzen den diru-kopuru jakin bat" bezala aurkezten zaigu, edo, bestela esanda, lanaren balioaren diruzko adierazpena bezala. Marxek dio hori nahastea dela, berarentzat *lan-indarraren balioaz* bakarrik hitz egin baitaiteke, baina inoiz ez *lanaren balioaz*.

Marxen ustez, **lan-indarra lan bat egiteko gaitasuna da, bere potentzia, eta lana, berriz, egintza bera**¹. Hori, makina egiten dituen zereginekin nahastearen parekoa litzateke. Beraz, Marxek "irrazionala² eta" irudimenezko adierazpena³ " deritzo ikuskera horri, nahiz eta horrelako bat-bateko ideiak "ekoizpen-harremanetatik bertatik sortzen diren"⁴; hau da, harreman sozial kapitalistek gizarte kapitalistako aktore ezberdinak (kapitalista, langilea) sarri gauzak modu faltsuan, ez denean zuzenean *alderantzikatu*an, ulertzea eramaten dituzte⁵. Horregatik ulertu behar dugu soldata "*forma itxuraldatua*"⁶ dela, **lan-indarraren balioa lanaren⁷ balioarekin nahasten duen moztorra**.

Dena den, langileen eta kapitalisten artean hedatutako ulermen oker horren ondorioz, **soldata ordaindutako lan gisa aurkezten zaigu**. Nolanahi ere, Marxek badaki mistifikazio horiek izateko arrazoi bat dutela, eta, horregatik, moztorra kentzen saiatzen da, Proudhon ez bezala, mistifikazio horiek kontu nominal batera murrizten baititu, "Lizentzia poetiko" ⁸batera, eta horregatik ezgai da bere eragina antzemateko. *Zientziaren* zeregina kategoriatan horiek zertarako balio duten argitzea litzateke, eta soldataren kasuan, horrek *gainbalioa* ezkutatzeko balio du, hau da esplotazioaren⁹ oinarria. Zeregin hori ezinezkoa da ekonomia politikoan "bere azal burgesean biltzen den bitartean".¹⁰

Horrekin jarraituz, eta, ekonomia politiko burgesak proposatzen duen bezala, erosten dena lana bera dela suposatuz, merkantzia baten aurrean aurkituko ginatke. Marxek langileen lanaren prezioa, hots, soldata ekonomia politikoaren arabera, eta lan horren produktuaren prezioa berdina izateak ekarriko lituzkeen ondorioak aipatzen ditu:

1. Lehenik eta behin, kapitalistak bere irabazia balioaren azpitik erosi eta haren gainetik saltzearen emaitza dela uste du, baina, ikusi dugunez, gainbalioa ez da sortzen trukearen esparruan (IV. Kapituluak). Ekonomia politikoak ezartzen du lanaren balioak beti izan behar duela bere produktuaren balioa baino txikiagoa, baina hori zentzugabea litzateke eta gainera, baliokideen truke-legearen urraketa.
2. Beste aukera litzateke langilea bere lanari dagokion balioa duen produktu osoa jasotzen aritzea. Orduan, lana ordainduko balitz, eta ez lan-indarra, ez litzateke gainbaliorik egongo, eta, beraz,

¹ "lanerako gaitasuna esaten duenak ez du lanik esaten, digeritzeko gaitasuna esaten duenak digestioa esaten ez duen bezala." Marx, K. (2007). El capital (Libro I-Tomo I, cap. IV, p. 233). *Akal, Madril*.

² Ibidem (Tomo II, cap. XVII, p. 298).

³ Ibidem (p. 295)

⁴ Ibidem (p.295)

⁵Horregatik, Marxek bereizi egiten ditu *manifestazio-forma* eta *funtsezko erlazioa*, maskara horren atzean gauzak nola aurkezten zaizkigun eta benetan nolakoak diren bereizteko.

⁶ Ibidem (p.298)

⁷ "XV. kapituluak lan-indarraren eta gainbalioaren magnitude-aldaketari buruz azaldutako legeak, forma-aldaketa soil baten bidez, soldataren lege bihurtzen dira." Ibidem (p. 303).

⁸ Ibidem (p.296)

⁹ Bermudo, José Manuel. El salario y sus formas transfiguradas. Hemendik jasoa:

<https://www.jmbermudo.es/marx/formas-salario.html>

¹⁰ Marx, K. (2007). El capital (Libro I-Tomo II, cap. XVII, p. 302). *Akal, Madril*.

kapitalistaren dirua ez litzateke kapital bihurtuko. Baina gainbalioa ez bada, **"Ekoizpen kapitalistaren oinarria deuseztatuko litzateke"**¹¹ eroslearentzat.

Gainera, merkantzia bat izateko, saldu aurretik existitu beharko litzateke, eta lana, berriz, salmenta ondoren hornitzen da. Trukearen aurretik, langileak ez du lanik¹²; **soilik lan-indarra merkantzia besterendu ondoren, langileak gaitasun hori martxan jartzen du eta, orduan, lana hornitzen du.** Marxek hori agerian uzten du "lana merkatura eramaten den unean sortzen da"¹³ esatean .

Hemen zehaztu behar da salmenta unean ere ez dela ordaintzen, behin lan¹⁴ hori hornituta egiten dela. Era berean, soldata egin beharreko lanagatik aurreratutako dirua denaren ideia dago, baina definizio arazotsua ere bada; izan ere, nola zehazten da aurreratutako balioa merkantzia bat produzitu ez bada, eta, beraz, haren balioa gauzatu ez bada? Ausaz zehaztuko balitz, eta, beraz, produktuaren balioarekin bat ez baletor, zeina objektiboki determinagarria baita, *baliokideen truke-legea* urratuko litzateke.

Horrela da, balioaren substantzia *giza lana* delako, abstraktuki kontsideratua. Modu horretan, zorrotzak izanik, lana edo lurra ez dira lanaren produktuak, nahiz eta prezioa jarri eta merkantzia¹⁵ gisa aurkeztu, lanaren kasuan soldataren forma juridikoan, *lan-salerosketaren* kontzeptupean.

Era berean, *lana* benetan merkantzia bat balitz, beste paradoxa batera iritsiko ginateke, haren balioa zehazteko moduari erreparatzen diogunean. Giza lana (abstraktuki kontsideratua) "merkantzien¹⁶ balioaren substantzia eta neurri immanentea" da. Hau da, merkantziei gizarte kapitalistan ematen zaien balioa merkantziak ekoizteko *sozialki beharrezkoa den lanaren* arabera neurtzen da. Ondorioz, mugikor edo auto batek duen balioaz hitz egin dezakegu, horiek ekoizteko x ordu behar direlako. Aitzitik, **ez luke zentzurik izango x lanordu ekoizteko behar den lan-denboraz hitz egiteak.** I. kapituluan ikusi genuen bezala, merkantzia baten *balioaren* magnitudea ez da berez adierazten, baizik eta beste merkantzia batzuekin¹⁷ konparatzen da.

Marxek erakusten digun beste nahasmen bat *lan biziaren eta lan hilaren* artekoa da. Modu arruntean esanda, lehenengoa lan-egintza bera izango litzateke, eta bigarrena, berriz, *lan* horren emaitza -horregatik, merkantzia batean objektibatutako edo kristalizatutako lanaz hitz egiten dugu-, eta, beraz, hori da sal daitekeen bakarra. Marxek dio: "Langileak lanari existentzia autonomo bat eman ahal izango balio, salduko lukeena merkantzia bat izango litzateke, eta ez lana"¹⁸ . Hala ere, merkaturan badirudi langileak bere burua saltzen duela. Hau ere mistifikazio bat da.

Are gehiago, **merkantzien prezioa lan biziaren arabera zehazten da, hura ekoizteko behar den lan-denboraren arabera, eta ez bere baitan duen lan objektibatu, hilaren, arabera.** Ikuspuntu horretatik, trukean sartzen denak ez du hainbeste axola, ateratzen den balioak axola du, eta balio hori *gehitu*¹⁹ egiten da lan-indarra denbora jakin batean funtzionaraziz. Marxek merkantzia jakin bat ekoizteko sozialki beharrezkoa den lan denbora murrizten duen berrikuntza teknologikoaren bidez argitzen du: kontutan hartzen dena *lan bizia* denez, lan denbora txikitzean merkantziaren balioa ere jaitsi egiten da. Hortik

¹¹ Ibidem (p.294)

¹² "Langileak kapitalistaren tailerra zapaltzen duen unetik, haren lan-indarraren erabilera-balioa, eta, beraz, haren erabilera, lana, kapitalistarena da." Ibidem (Libro I-Tomo I, cap. V, p. 251)

¹³ Ibidem (Libro I-Tomo II, cap. XVII, p. 294). *Akal, Madril.*

¹⁴ Langileak lan-indarraren erabilera-balioa aurreratzen dio kapitalistari; horri esker, erosleak kontsumitu egin dezake dagokion prezioa ordaindu aurretik. Leku guztietan langileak ematen dio kreditua kapitalistari. Nonahi, langileak irekitzen dio kreditua kapitalistari."Ibidem (Libro I-Tomo I, cap. V, p. 251)

¹⁵ Prezioaren formak, ordea, **ez du soilik balio magnitudearen eta prezioaren arteko inkongruentzia kuantitatiboa onartzen** (...), baizik eta **kontraesan kualitatiboa** ere izan dezake. (...) Gauza batek prezio formala izan dezake, baliorik izan gabe. Diruzko adierazpena irudimenezko bihurtzen da hemen, magnitude matematiko batzuetan bezala."Ibidem (Libro I-Tomo I, cap. III, p. 141)

¹⁶ Ibidem (Libro I-Tomo II, cap. XVII, p. 295)

¹⁷ "No puedo expresar el valor de la tela en tela" Ibidem (Libro I-Tomo I, cap. I, p. 72)

¹⁸ Ibidem (Libro I-Tomo II, cap. XVII, p. 294)

¹⁹ Lan bizia gehitzen du, eta beste merkantzia batzuetan erantsitako lan hila transferitzen du.

ondorioztatzen da balioa ez dela zerbait estankoa (nahiz eta ez den zerbait subjektiboa, ekonomia politikoak babesten duen bezala, balioa eta truke balioa nahastuz).

Soldaten determinazioari dagokionez, Marxentzat, ekonomia politikoaren kontzepzioa kontingentea da, hau da, gerta daitekeena edo ez, eta, beraz, ezingo litzateke legetzat hartu, subjektibismoan erori eta metodo zientifikotik²⁰ kanpo geratuko litzatekeelako. Horrela, bada, Marxek argitzen du eskaintzak eta eskariak, aldakorak izan arren, konstante bat marraztea ahalbidetzen dutela, gorabehera horiek deuseztatzen dituen batez besteko bat, batez ere denbora-tarte luzeagoa kontuan hartzen bada. Ekonomia politikoaren arabera *prezio naturala* (fisiokratak) edo *beharrezko prezioa* (Adam Smith) existituko litzateke, eta horren inguruan eskaintza eta eskariaren ondorioz aldatzen diren *ustekabeko prezioak*. Hala ere, **Marxek azaltzen duenez, berez, prezio naturalaz hitz egitean, balioaz ari dira, nahiz eta ez jabetu**. Horren inguruan mugitzen dira benetan *ustekabeko prezioak* edo *prezio akzidentalak*.

Soldataren mugei dagokienez, langilearentzako gutxieneko prezioa bere lan-indarraren erreproduktzioarako beharrezkoa dena izango litzateke. Betetzen ez bada, arriskuan jartzen da bere existentzia. Kapitalistarentzat, soldatek hurrengo metaketa-zikloa abiaraztea ahalbidetuko duen irabazia lortzea bermatu beharko lukete. Lortzen ez badu, lehiatik kanpo geratu eta negozioa ixteko arriskua du. Soldata bi muga horien artekoa izateak esan nahi du **ez dela trukearen esparruan finkatzen, baizik eta "ekoizpen kapitalista arautzen duten legeek" edo "barne-determinazioek" zehazten dutela, inondik inora subjektiboak²¹ ez direnak**.

Soldataren *mugimendu efektiboari* erreparatzen badiogu, badirudi kapitalistak *lana* ordaintzen duela, *lan-indarraren* ordez. Adibidez, lanaldia aldatzen bada eta soldata ere aldatzen bada, edo langileen soldaten arteko alde indibiduali erreparatzen badiogu. Bigarren kasuan, badirudi beren *lana* hobeto saltzen jakin dutelako/ahal izan dutelako dela, baina, egiaz, beren lan-indarra batez bestekoaren azpitik edo gainetik saltzea lortu dute, prezioa lan-indarraren balioarekiko aldatuz.

Ekonomia politikoaren inkoherentzia horiek aurrez aurre jarri ondoren, eta, beraz, bere kategorien muga azaldu ondoren, Marxek kapituluaren puntu nagusi bat azaltzen du: "**soldataren formak beharrezko lana eta gain lanaren arteko bereizketa²² arrasto oro ezabatzen du**", "**lan oro ordaindu gisa agertzen**" baita. Hau ez zen beste ekoizpen modu batzuetan gertatzen; feudalismoan zerbitzariak beharrezko lana eta jauntxoarentzat egiten zuen lana lur eta une desberdinetan egiten zuen, eta esklabutzan esklaboaren beharrezko lana bere nagusiarentzat lan bezala aurkezten zen.

Laburbilduz, **Marxek soldatari buruzko kontzepzioa erasotzen du, ordaindutako lan-denbora gisa ulertuta**, gizarte kapitalistako agenteen artean (langileak barne) zabalduta dagoen kontzepzioa; horren ordez, hau adierazten du: "lan-indarra erreproduzitzeko behar diren bizibideen diruzko balioa da, hau da, lanaldiaren²³ beharrezko lanean sortutako balioa." Eta, aldi berean, **argitzen du soldataren kontzepzio horren funtzioa lan ordaindua eta ez ordainduaren arteko diferentzia ezkutatzea dela**. Horrela, Marxen ustez, **soldata gainbalioaren eta, beraz, esplotazioaren²⁴ jatorria disimulatzeke mekanismoa da**. Horren gainean oinarritzen dira "langilearen eta kapitalistaren²⁵ nozio juridikoak (edo mistifikatuak, iruzurrezkoak, apologetikoak)".

²⁰ Bermudo, José Manuel. El salario y sus formas transfiguradas.

²¹ Ídem

²² Marx, K. (2007). El capital (Libro I-Tomo II, cap. XVII, p. 299). Akal, Madrid.

²³ Bermudo, José Manuel El salario y sus formas transfiguradas. Hemendik jasoa:

<https://www.jmbermudo.es/marx/formas-salario.html>

²⁴ Bermudo, José Manuel. El salario y sus formas transfiguradas. Hemendik berreskuratua:

<https://www.jmbermudo.es/marx/formas-salario.html>

²⁵ Guerrero, Diego. Un resumen completo del capital (p.49). Hemendik berreskuratua:

<https://bataillesocialiste.files.wordpress.com/2009/09/resumen-de-el-capital-diego-guerrero.pdf>

XVIII. KAPITULUA. DENBORAREN ARABERAKO SOLDATA

Kategoria bera *lan-indarraren* balioaren edo prezioaren transfigurazioa bada ere, era desberdinetan zehazten da. Ohikoenetako bat *denboraren araberako soldata* da, lan magnitude jakin baten truke egiten den ordainketa bezala aurkezten zaiguna, "erloju edo egutegi unitate abstraktuetan" neurtua²⁶. Hori *lan-indarraren* prezioa lanorduekin zatituz ezartzen da²⁷. Hala ere, soldatari buruz ikusi duguna *adierazpen-formari* aplikatu dakioke, *denboraren araberako soldatari*, alegia; **beharrezkoa den lanaren eta gain lanaren arteko aldea ezkutatzan jarraitzen da**. Benetan lan-ordua ordainduko balitz, kapitalistak ez luke irabazirik izango.

Soldata nominala, hau da, denboraren araberako soldataren diru-kantitate osoa, eta *lanaren prezioa* bereizi behar dira. Azken hori, lan-indarraren balioa lanaldiko orduekin zatituz kalkulatzen da. Ondorioz, lanaldia aldatzen bada, soldata nominala alda daiteke, nahiz eta lanaren prezioa mantendu, eta alderantziz. Denboran-unitateko prezio horri *denboraren araberako soldata* deitzen zaio.

Marxek **azpiokupazioak dakartzan arazoak** adierazten jarraitzen du²⁸. Lanaren prezioa mantentzen bada, langilea denbora jakin batetik behera okupatzeak ez dituela bere lan-indarraren *erreprodukzio-kostuak* asetzen esan nahi du. Gutxienez denbora hori *beharrezko lanaren* eta *gain lanaren* arteko banaketaren araberakoa ere izan arren, jasotzen duen balioa bere lan indarraren balioaren berdina izan behar dela ulertu behar dugu.

Zer **onura** dakarkio *denboraren araberako soldata* kapitalistari?

1. Lehenik eta behin, benetako okupazio-orduak ordaintzeko aukera ematen dio, eta ez lansaria²⁹. Lanorduaren prezioa batez besteko ordu-kopuruaren arabera finkatu zen. Demagun langilea azpiokupatuta dagoela; hori tranpa bat da; izan ere, *lan-indarraren* balioa kontuan hartuta, zenbat eta ordu gutxiago irauten bere lanaldiak, orduan eta handiagoa izan *beharko litzateke lan-orduaren prezioa*.
2. Bigarrenik, *normalizat* hartzen den *lanaldia* eta *lanaldi erreala* bereizi behar dira. Aparteko orduak lanaldiaren luzapena direla irudi arren, askotan alderantziz da; lanaldi normalizat hartzen dena benetan lan egiten den lanaldiaren zati bat baino ez da. Izan ere, *lanaldi normala* finkatzeko erak langilea bere lanaren prezioa konpentsatu behar izateko lanaldia luzatzera behartu ohi du. Horri dagokionez, gogora ekarri behar da, lan-indarraren balioa finkatuta dagoenean, zenbat eta ordu gehiago luzatu lanaldia, orduan eta txikiagoa izango dela orduaren prezioa, eta, beraz, konpentsazioak aplikatu beharko direla. Gainera, "aparteko orduetan" ordaindu gabeko lana ere sartzen da.
3. Nahiz eta konpentsazio horiek eman, lan gehiago egongo da, baina lan-indar gutxiago. Adibidez, pertsona batek bere lana egingo luke, gehi batez bestekoari dagokiona. Horrek aukera ematen dio lan-orduaren prezioa murrizteko, eta horrek, aldi berean, lanaldia luzatzeko palanka gisa balio du. Ordaindu gabeko lanaren "ezohiko kopuruak"³⁰ lortzeko mekanismo horrek kapitalen arteko lehia du eragina. Berez mesede egiten ez dien arren, merkantziak oso prezio baxuetan saldu behar izaten dituzte, soldata miserableak eta amaiera gabeko lanaldiak ekarriz.

²⁶ Bermudo, José Manuel. El salario y sus formas transfiguradas. Hemendik berreskuratua:

<https://www.jmbermudo.es/marx/formas-salario.html>

²⁷ Ekonomia politikoan "lanaren prezioa"

²⁸ VIII. Kapituluaren lanaldiaren gehiegizko iraupenaren arriskuez hitz egin zigun.

²⁹ Marxek jornalaz edo asteroko soldataz hitz egiten digu. Gogorazi behar dugu, garai hartan soldata ez zela hilabeteka ordaintzen, gehienez asteka izaten zen.

³⁰ Marx, K. (2007). El capital (Libro I-Tomo II, cap. XIX, p. 311). Akal, Madril.

XIX. KAPITULUA. DESTAJUKO SOLDATA

Destajuko soldata denboraren arabeko soldataren forma itxuraldatua da; azken hori, aldi berean, itxuraldaketa bat da. **Destajuko soldataren kasuan, badirudi produktuan objektibatutako lana ordaintzen dela, eta, beraz, bere errendimendua, benetan ordainketaren zenbatekoa lan-indarraren eguneko balioa lanaldiko ordukin zatitzearen arabera zehaztu denean.** Hala ere, denboraren arabeko soldatan lanaren zuzeneko iraupena neurtzen da, eta horrek zerikusia du balioarekin; aldiz, destajuko soldatan, lan-denbora hori zenbat produktutan gauzatzen den neurtzen da, eta, beraz, "ez du zuzenean inolako balio-erlaziorik adierazten"³¹.

Hain zuzen ere, bi formen arteko ezberdintasun formalak (destajuz eta orduka) ez du "ezertan aldatzen haien esentzia", Marxek erakusten duen bezala:

1. Ordukako soldata: $72p/12h = 6p$ lanordua.
2. Destajuko soldata: $72p/24$ pieza: 3p pieza.

Bi kasuetan lanaldia honela banatzen denez: 6 ordu beharrezko lanean eta 6 orduko gain lana, benetan ez legoke alderik bi moduen artean, edo, hobeto esanda, frogatuko litzateke destajuko soldata denboraren arabeko soldataren itxuraldaketa dela. Hori ere agerian geratzen da, pieza bat ekoizteko bete behar den batez besteko denbora finkatzen delako.

Langileak gaizki interpreta dezake destajuko soldataren bidez ekoizten duena ordaintzen zaiola³². Aitzitik, **beharrezko lanaren eta gain lanaren arteko banaketak indarrean jarraitzen du**, baina orain piezetan irudikatzen da, lanaldiaren zati alikuotan ordez, nahiz eta funtsean gauza bera izan. Azken batean, langileak jasotzen duen balioa edo prezioa sozialki lan-indarra erreproduzitzeko behar duen denbora da.

Funtzio mistifikatzailetik haratago, "soldataren deskontu eta iruzur kapitalisten iturri emankorra" da³³. Izan ere, "lanaldia luzatzeko eta soldata murrizteko" balio du³⁴. Jatorria gremio-sisteman badu ere, kapitalismoak subsumitu du, hau da, "gainbalioa ekoizteko funtzionatzen dute"³⁵. Gainera, hainbat industria-adarretan denboraren arabeko soldatarekin batera existitzen da, logikoa, funtsean gauza bera baitira. Hona hemen kapitalistarentzat nabarmendu genitzakeen onura batzuk:

- Lanaren kalitatearen eta intentsitatearen gaineko kontrol handia, bietarako ezarritako batez bestekoa bete behar baita.
- Ikuskapena ez da hain beharrezkoa, kalitate- eta intentsitate-estandarrek funtzio hori betetzen baitute, askatasunaren eta autonomiaren ilusioa sustatuz.
- Lana azpikontratatzeko aukera ematea, "kapitalistaren eta langilearen arteko parasitoak" sustatuz³⁶. Kontratututako laguntzailearen soldata bitartekariarenean sartuta egongo litzateke. Horrek "esplotazioaren agentea maskaratzen du, kapitalista"³⁷, langileak elkarren artean esplotatzen direla dirudielako. Ez da horrela, langile nagusiak ez baitu gain lana jasotzen, baizik eta bere lan indarraren erreprodukzioa ordaintzen zaio ere, batez besteko marjinen barruan.
- Intentsitate maila normala igotzea errazten du.
- Langileen arteko lehia sustatzen du. Hala ere, langile individual batzuek batez besteko soldata gainditzen badute ere, *tailer globala* hartu behar dugu kontuan eta, beraz, berdinduta geratuko lirateke, joera orokorra beheranzkoa den bitartean.

Lanaren produktibitatea aldatzen bada, eta horrek denbora laburragoan pieza gehiago ekoizteko aukera ematen badu, piezen balioa jaitsi egingo da. "Denbora berean ekoiztutako piezen kopurua handitzen den proportzio berean" murriztuko da destajuko soldata³⁸. Horren ondorioz, langileen eta kapitalisten arteko

³¹ Ibidem (p. 316)

³² Bermudo, José Manuel. El salario y sus formas transfiguradas.

³³ Marx, K. (2007). El capital (Libro I-Tomo II, cap. XIX, p. 316). *Akal, Madril*.

³⁴ Ibidem

³⁵ Ibidem

³⁶ Ibidem

³⁷ Ibidem

³⁸ Marx, K. (2007). El capital (Libro I-Tomo II, cap. XIX, p. 321). *Akal, Madril*.

liskarrak sortzen dira, dela soldata jaisten delako, dela produktibitatea handitzeak intentsitate handiagoa dakarrelako, dela, langileen ikuspegitik, soldata nominalaren igoera ez datorrelako bat soldata errearen igoerarekin.

XX. KAPITULUA. SOLDATEN ANIZTASUN NAZIONALA

Marxek nazio desberdinen arteko soldata-aldea eta langileen esplotazio-mailarekin duten harremana aztertzen ditu³⁹. Soldata-alde horiek egiaztatzeko, Marxen arabera, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Lan-indarra erreproduzitzeko behar diren bitartekoen prezioa eta bolumena, dagozkion determinazioekin.
- Langilearen hezkuntza-kostuak
- Emakumeen eta haurren lanaren papera
- Lanaren produktibitatea
- Bere magnitude intentsiboa eta estentsiboa

Herrialde ezberdinek batez besteko lan-intentsitate ezberdinak dituzte, eta merkantzia bat ekoizteko sozialki beharrezkoak diren denbora ezberdinak. Hori bai, *lan unibertsalaren batez besteko neurri* batez hitz egin daiteke, eskala batetan. Lanaren batez besteko intentsitatea handiagoa den herrialde batetan balio gehiago eta, beraz, diru gehiago ekoiztuko litzateke, eta gauza bera, baina kontrara, gertatuko litzateke batez bestekotik beherako intentsitatea duen herrialde batetan. Era berean, mundu mailako merkatuan, "lan nazional produktiboa intentsiboagoa da" ⁴⁰, baldin eta, lehiaren ondorioz, "merkantziaren salmenta-prezioa bere baliora murriztu behar ez badu" ⁴¹.

Une honetan, Marxek formulatzen du, herrialde batean kapitalismoa garatu ahala, nazionalki aintzat hartutako lanaren intentsitatea eta produktibitatea nazioarteko batez bestekoaren gainetik handitzen dela, eta, beraz, merkantzia berberak "nazioarteko balioen arabera aldatzen diren" balioak izan ditzaketela⁴². Hala eta guztiz ere, nahiz eta soldata nominala handiagoa izan nazio batean beste batean baino, ez du zertan soldata errearen pare egon. Eta hemen ideia nagusi batera iristen gara kapituluan: **nazio batean soldata handiagoak izatea esplotazio maila altuagoarekin bat etor daiteke aldi berean**. Azkenean, kapitalistari axola zaiona gain lana da; beraz, soldata horrekin alderatu behar da. Hori egiten badugu, eta, gainera, gainbalio absolutuaren eta erlatiboaren mekanismoak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu beharrezko lanaren eta gain lanaren arteko amildegia gero eta handiagoa dela, eta gero eta gutxiago garelako sortzen dugun aberastasun sozialaren partaide.

BIBLIOGRAFIA

- Marx, K. (2007). El capital (Libro I-Tomo I). Akal, Madril.
- Marx, K. (2007). El capital (Libro I-Tomo II). Akal, Madril.
- Bermudo, José Manuel. El salario y sus formas transfiguradas. Hemendik berreskuratua: <https://www.jmbermudo.es/marx/formas-salario.html>
- Guerrero, Diego. Kapitalaren laburpen osoa (kapituluak). Berreskuratua: <https://bataillesocialiste.files.wordpress.com/2009/09/resumen-de-el-capital-diego-guerrero.pdf>
- Heinrich, Michael (2008). Economía politikoaren kritika, Marxen kapitalerako sarrera (IV. kapituluak, V. epigrafea). Escuela y Mayo, Madril.

³⁹ Bermudo, José Manuel. El salario y sus formas transfiguradas.

⁴⁰ Marx, K. (2007). El capital (Libro I-Tomo II, cap. XX, p. 326). Akal, Madril.

⁴¹ Ibidem

⁴² Ibidem